



## Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2024ko ekainaren 4a


<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

### Eneko Aizpurua

(Lazkao, 1976)

Eneko Aizpurua zuzenbidean lizentziaduna da eta gaur egun itzultzaile egiten du lan Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

### **Gaueko azken expressoa**



Antonio izeneko haur garaiko lagun minaren gaixotasun sendaezinak jarri du berriz martxan narratzailearen gogo eta sorterrira itzultzeko asmo sendoa. Bere ahotik, nahiz bizikide izan dituen seme, maitale, alaba eta emaztearen ahotik ezagutuko ditu irakurleak protagonistaren ibilerak, Portugalgo sorterritik Euskal Herriko Bidasoaldera eraman zutenak, gazte garai gogor (Salazarren diktadura garaiak ziren), migratzeko erabaki zail (bizimodu duinago bat eramateko aukera bakarra zen), bizitoki berrian laketzeko zailtasunak (sorterria utzi duena betirako izango da arrotz), bai eta Irundik Portora doan gaueko azken expressoan egindako bidaia iradokikor eta barnebiltzaile bat ere. Eneko

Aizpuruak "Bidasoan gora" saiakera literario mamitsuan irekitako bidea probestuta, fikziora dakartza orain bertan aletutako hainbat eta hainbat gai (Bidasoa ibaia pasaleku gisa bakarrik ez, etorkizun bat eraikitzeko topos gisa erabili zuten portugesena, adibidez, garrantzitsuenen artean), gai ez aski ezagunak euskal irakurlearentzat, "Gaueko azken expressoa" eleberri honek modu hunkigarrian zabaldu eta ezagutzeko parada emango dizkionak. Migratzeari, deserriari, bizi ezintasunari, laguntasunari, familiari, baita, azpigai modura nahi bada, baina Euskal Herriari eta euskal gatazkari buruzko hausnarketa ere pizten duen kontakizun bat jostea lortu du Aizpuruak, bere laugarrena den eleberri honetan.

## Eneko Aizpuruaren argitalpenak

Nobelak

**Errauts** (2011) **N-4 AIZ**

**Herensuge gorriaren urtea** (2013) **N AIZ**

**Lehertu da festa** (2016) **N-4 AIZ**

**Gaueko azken expressoa** (2023) **N AIZ**

Saiakera

**Bidasoan gora** (2020) **M AIZ**

Kontakizun laburra

**(Euskal) haluzinazio bat** (2018)

## Kritikak esandakoak

“... Ezer baino lehen, aitortu beharra dago anbizio literario handiko lana dela. Aizpuruak agertutako gaiak konplexuak dira, hari narratibo ugari aktibatzea eskatzen dute. Bidasoa, Minho, Douro eta Sena ibaiek osatutako amaraunean, hildako migrari portugaldarrak, euskal gatazka eta euskal identitatearen gaineko hausnarketa edota deserrotzearen bizimina azalduko dira, besteak beste. Izaera polifonikoak ere nobelaren mataza kiribiltzen du, ahotsok zein bere erara menderatzea eskatzen duenez. Lortutako emaitza, nire ustez, gorabeheratsua da. Arazorik handiena pertsonaien karakterizazioan antzeman dut. Pertsonaien berezko ahotsa itotzen du tarteka tonu didaktiko samar batek; enfatikoegia iritzi diot, eta narrazioaren sinesgarritasunari kalte egiten diola uste dut. Bakarrizketen berbaro etengabearen esandakoaren dekantazio hobea hartu dut faltan, pertsonaien eraikuntza konplexuagoa ahalbidetuko zuelakoan. Nobelaren indargunea, aldiz, idazkeran bertan dago, Aizpuruaren grina literario harrigarrian. Prosa gihartsu eta sukartsua darabil autoreak, zeinak Barrosen itzulerako pasarteetan goia jotzen baitu, protagonista Gisele prostituta gisa ibilitako Valença do Minho auzora iristen denekoan, kasurako. Deskribapenetan dohaina ere badu Aizpuruak, tokien deskribapenetan bereziki, eta ederrak dira uzten dituen irudi asko. Esan bezala, nobela kementsua da Gauerdiko azken expressoa, gorabeherak gorabehera, ibaiaren ur bizien gisako esaldi eta pasarteak dituen.”

Asier Urkiza / Berria, 2023-12-17

## Erabilitako iturriak

Wikipedia

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Eneko\\_Aizpurua](https://eu.wikipedia.org/wiki/Eneko_Aizpurua)

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8874>

Txalaparta

<https://www.txalaparta.eus/es/libros/gaueko-azken-expresso>